

"KOSMODISEAKO ALDERDIRIK ONENA, TALDE-LANA ETA MOTIBAZIOA SUSTATZEN DUELA"



Kosmodisea 2008-2009 | Ikono Planeta | Lehen hezkuntza (Fisio) Edurne Txoperena (Ikasbide Ikastola)

Edurne Txoperenak, Kosmodisea 2008-2009ko Ikono Planetan emaitza bikaina lortu duen Ikasbide Ikastolako taldearen arduradunak, ekintza honetan "*talde-lana, motibazioa, inplikazioa eta gogoa*" bereziki baloratu dituztela dio eta, halaber, ikasleek ahal zuten guztia egin dutela ahalik eta lan hoberena egiteko helburuarekin. Zentzu horretan, puntuazioa bigarren maila batean egon da beti, "*emaitza onak motibazio gehiago emango diela badakigun arren*".

- **Zer izan zen zailena lana egiteko orduan?**
- *Lana hasterakoan zituzten ideiak eta azkenean garatu dena, ezberdin oso dira. Proiektuak aurrera egiten zuen ahala ekimen berriak sortzen ziren. Oso talde ekintzailea dugu, oso jarrera baikorra azaltzen du zailtasun eta aldaketan aurrean.*
- **Zer da orain arte interesgarriena suertatu zaizuen Kosmodisea 2008-2009n parte hartzeari dagokionean?**
- *Dena. Hasiera-hasieratik, proposaturiko gaia interesgarri oso iruditu zitzaigun. Joko handia eman dezake. Ikasleek egin duten lana oso polita da. Argi dago,*

ikasleen ikuspuntutik, ematen zaien aukera oso lortua dagoela. Teknologia berrien erabilera oso erakargarria da neska-mutilentzat.

- **Eta zeintzuk izan dira alderdirik korapilatsuenak ekitaldi honetan parte hartzeari dagokionean?**
- *Zailtasunak izan genituen hasieratik. Erabilitako eramangarria lan-erdian hondatzen zen eta ordura arte egindakoa galtzen genuen. Bestalde, azken unean arazoak izan ditugu ere Internet konexioarekin. Halere, ikasleak beti egon dira baikor eta lan egiteko gogoarekin. Miresgarria da, benetan, bai beren jarrera bai egin duten lana ere.*

- **Nola ekingo diozue Kosmodisea 2008-2009ko azken etapari?**
- *Hasieran genioen bezala, ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara. Mezu erakargarri eta argia erabiltzen saiatuko gara. Horretarako, talde-lana mantenduko dugu. Arazoak izango ditugula badakigu, baina horiei aurre egiteko prest gaude.*